| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/05/14<br>**Fecha**: 14/05/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Osoko Bilkura Aretoan<br>**Lugar**: Salón de Plenos |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udaletxea / Ayuntamiento:***

- Iñaki Totorikaguena (Alkatea), Iñaki Gil (zinegotzia)

***Gizartea/Sociedad:***

20 herritar / 20 ciudadanos/as

***Kontsultaria/Consultora:***

- Ainhoa Ugalde (BITAKA)
- Amaia Abanzabalegi (BITAKA)

| 1. Saludos y agradecimientos | 1. Aurkezpena eta esker onak |
|---|---|
| El Alcalde de Iurreta, Iñaki Totorikaguena, da la bienvenida y agradece a todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>El Alcalde expone que actualmente se está elaborando el estudio relativo al Plan de Movilidad Sostenible en la comarca del Duranguesado. Por ello, coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar dos foros de participación ciudadana donde toda la ciudadanía podrá tomar parte en el debate.<br><br>El Alcalde señala que el presente foro tiene el objetivo de presentar el borrador de la diagnosis del citado plan para que pueda ser sometido a un contraste con las opiniones y la visión de la ciudadanía en general y así poder completar, en su caso, el contenido de la diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br><br>Tras la presentación el Alcalde da la palabra a la Consultoría de BITAKA y se procede a detallar el orden del día:<br><br>• Saludos y agradecimientos; | Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak ongietorria eman die bertaratuei eta eskerrak ematen dizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu du Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren diagnosia aurkeztu den foro honetan.<br><br>Alkateak azaldu du gaur egun Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren inguruko azterketa bat abian dela. Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da denen artean gai horren inguruan eztabaida burutzeko. Hori da partaidetza foroak eratzeko arrazoia.<br><br>Foro honi dagokionez, alkateak esan du bere helburua Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren zirriborroa aurkeztu eta horren inguruko eritziak elkar trukatzea dela. Horrela, herritarren ikuspegia jasoko da, eta diagnosi horren edukia osotu ahal izango da.<br><br>Alkateak, bere aurkezpenaren ostean, BITAKA Aholkularitzako kideei eman die hitza. Lehendabizi Foroaren gai zerrenda azaldu dute:<br><br>• Aurkezpena eta eskerrak |

| | |
|---|---|
| • Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado;<br>• Ruegos y preguntas;<br>• Trabajo grupal;<br>• Resumen del trabajo grupal;<br>• Agradecimientos y próximos pasos. | • Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren aurkezpena.<br>• Galde-eskeak<br>• Taldekako lana<br>• Taldekako lanaren laburpena<br>• Agurra eta hurrengo pausuen azalpena. |
| **2. Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
| Ainhoa Ugalde y Amaia Abanzabalegi realizan la presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: el alcance y la razón de ser del estudio; las fases del plan; los objetivos que debe cumplir; el contenido y los datos más relevantes del diagnóstico del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que el documento del diagnóstico es un documento provisional que se espera que sea completado con las aportaciones propuestas por la ciudadanía en el presente foro. | Ainhoa Ugalde eta Amaia Abanzabalegik aurkeztu dute Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosia, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: azterketaren eremua (zein herritan burutu den), zergaitik egin den, planaren faseak, bete beharreko helburuak, eta azkenik, diagnosiaren edukia bera eta datu esanguratsuenak.<br><br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Diagnosiaren behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatutako izango da. |
| **3. Ruegos y preguntas** | **3. Eskari eta galderak** |
| Un ciudadano considera muy interesante que se realice un estudio de estas características, pero sin embargo, ve como una amenaza de cara a que se pueda llevar a cabo el plan de acción, el hecho de que el PTP, en fase de aprobación inicial, y el presupuesto destinado a otras grandes infraestructuras asociado al mismo, merme su potencial. Cree que, aunque no sea el objeto de este foro, se debería abrir un debate con la temática del PTP para el conocimiento de la ciudadanía. Lamenta que este estudio no se haya realizado con anterioridad, porque ve que se podrían haber utilizado los datos del diagnóstico por ejemplo para poder hacer alegaciones al PTP, aún así considera que como documento base puede tener una importancia a la hora de plantear iniciativas y proyectos. Lamenta la actitud mostrada por la DFB ante distintas | Herritar batek mota honetako azterketa bat egitea oso interesgarria dela aipatu du. Bestalde, gaur egun Durangoko Eremu funtzionalaren LPPa hasieran onartua dagoela esan du eta aurrekontuak zein azpiegiturara zuzenduak dauden ikusita, ekintza plana gauzatzeko orduan LPPa bera oztopo izango delakotan dago. Nahiz eta foro honetako gaia ez izan, beharrezkoa ikusten du LPParen gaiari buruz eztabaida bat sortzea, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen. Foro honetan aurkeztu den azterketa lehenago egin beharko zela uste du, horrela LPParen inguruan alegazioak burutzeko baliagarria izango litzatekeela uste du. Dena den, azterketak proiektu eta ekimenak proposatzeko balio ahal duela azaldu du.<br>Bestalde, eta mugikortasun iraunkorrago baten alde berak parte hartu duen beste ekimenen aurrean BFAko jarrera desegokia salatu du. Jarrera hau ere puntu kritikoa dela esan du. |

| | |
|---|---|
| iniciativas en las que ha participado a favor de una movilidad más sostenible y la ve como punto crítico.<br>El representante de + Dendak considera muy importante que se tenga en cuenta Zornotza y la movilidad existente con relación a este municipio, y como ejemplo pone el polígono industrial de Boroa como centro atractor y generador de movilidad. | salatu du. Jarrera hau ere puntu kritikoa dela esan du.<br><br>+ Dendak-en ordezkariak Zornotza kontuan hartzekoa dela aipatu du, batez ere herri honekin dagoen lotura mugikortasun arloan. Adibide bezala Boroako industrialdea jarri du, mugikortasuna sortu eta erakartzen duen gunea dela esan du. |
| **4. Trabajo grupal** | **4. Taldekako lana** |
| Mediante unas preguntas que sirven de guía, la consultora trata de recabar la mayor información relativa a la percepción que tiene la ciudadanía respecto a la movilidad sostenible y el Plan de Movilidad Sostenible.<br><br>Dado el número de asistentes, las consultoras proponen formar dos grupos de trabajo de diez personas, aunque al final por iniciativa de los/as asistentes resultan dos grupos de seis y catorce personas.<br><br>Mediante dicho trabajo grupal se obtienen importantes aportaciones que serán de utilidad a la hora de completar el borrador de la diagnosis:<br><br>▪ **Problemas específicos de movilidad en Iurreta:**<br>- Los problemas de movilidad de Durango respecto a la falta de aparcamiento se trasladan a Iurreta y sus alrededores.<br><br>▪ **Peatón y bicicletas:**<br>- Sería necesario un cambio de mentalidad para que la gente use los carriles de forma cotidiana.<br>- El clima de Euskadi no ayuda para que la gente utilice los carriles bici de manera cotidiana.<br>- Todos/as afirman que la existencia de dichos carriles no solo debe ser de ocio, sino que debe responder a la exigencias más importantes que marca la vida real: ir a trabajar, ir de compras, ir a la escuela...<br>- Las redes peatonales y ciclables deberían de tener la suficiente amplitud y contar con todas las herramientas para garantizar la seguridad vial en todos/as los/as | Gidoi bezala galdera batzuk oinarritzat hartuta, aholkularitzak herritarrekin elkarrizketa bat izan nahi du, ahal den heinean Mugikortasun Iraunkorraren inguruan eta Planaren inguruan konkretuki herritarren iritziak jasotzeko asmoz.<br><br>Parte-hartzaileen kopurua kontuan izanda, aholkularitzak bi talde eratzea proposatu du, talde bakoitzean 10 pertsona egoteko asmoz. Azkenean, eta parte-hartzaileek hala nahi izan dutelako, talde batean sei eta bestean hamalau pertsona izan dira.<br><br>Taldekako lan honetatik garrantzitsuak diren ekarpenak jaso dira, eta diagnosiaren zirriborroa osatzeko baliagarriak izango dira:<br><br>▪ **Iurretan mugikortasunari dagokionez arazoak:**<br>- Durangoko aparkaleku arazoak Iurretan dute eragina, gidariak Iurreta eta inguruetara jotzen bait dute aparkaleku bila.<br><br>▪ **Oinezkoak eta bizikletak**<br>- Oinezko eta bizikletentzako bide-sareen erabilpenerako beharrezkoa ikusi da mentalitate aldaketa bat ematea gizartean.<br>- Euskadiko klimak ez du lagunduko erabilpen horri dagokionez.<br>- Bide-sare horiek aisialdirako bakarrik barik, egunerokotasunean erabiliak izan beharko liratekeela adostu dute parte-hartzaileek, hau da: lanerako, erosketarako eta eskolarako joan-etorrietan erabili beharko lirateke.<br>- Oinezkoentzat eta bizikletentzat eraikitako bide-sareek behar bezalako zabalera eta baldintzak izan behar dituzte erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko. |

usuarios.

- Algunos opinan que el carril bici podría ir a lado de la carretera, pero que el carril peatonal debería ir un poco alejado de la carretera, ya que hay tramos que los vehículos van a relativa velocidad y además, el andar tan cerca de la carretera puede ser molesto por el ruido que genera.

- Otros opinan que el carril bici y el carril peatonal podrían ir uno a lado del otro (aunque separados físicamente), y alejado un poco de la carretera general.

- En todo caso sería necesaria la implantación de APARCABICIS en todas las zonas de atracción para el/la viajero/a.

- Se considera que el éxito de una red peatonal o ciclable depende en gran medida del trazado de la misma, que en todo caso conviene que no sea paralelo a la carretera general (por seguridad, calidad de aire respirado, ruido...). Como posibilidad se apunta que el trazado podría discurrir por los márgnes de los ríos, cuya competencia corresponde a Aguas.

- Respecto al borrador de redes peatonales y ciclistas, se observa que su éxito radicará en la rapidez y accesibilidad de las mismas. Se argumenta que el uso del medio de transporte está relacionado con la rapidez del transporte.

▪ **Transporte público - colectivo:**

- A grandes rasgos. todos/as se muestran conformes con el servicio de transporte público existente en el centro de Iurreta.

- Para el cambio del transporte privado al transporte público o al colectivo hace falta un cambio de mentalidad completo. Se pone como ejemplo que varias empresas han puesto a disposición de sus trabajadores un transporte colectivo pero que no tiene el uso deseado.

- Se detecta aún un desconocimiento exacto del funcionamiento del Taxi-Auzunea de Iurreta (si las tarifas son por desplazamiento o por pasajero/a) y parte de las personas reunidas en el grupo de trabajo desconocían la iniciativa del Ayuntamiento de Iurreta de compartir coche. Se valoran muy positivamente las

- Batzuen ustetan, bizikletentzako bide-sarea errepidearen ondoan jarri daiteke, baina apur bat aldenduta, gune batzuetan ibilgailuak abiadura bizian doazelako, eta zarata bera desatsegina izan daitekeelako.

- Beste batzuen ustetan, oinezkoentzako eta bizikletentzako bide-sareak bata bestearen ondoan izan daitezke (fisikoki bananduak) eta errepide nagusitik urrunduta edonola ere.

- Beharrezkoak dira bizikletentzako aparkalekuak ezartzea mugikortasun-erakarpen guneetan.

- Oinezkoen eta bizikleten bide-sareen arrakasta baldintzapean dago: bere ibilbidea errepide nagusitik urrun izan behar da (segurtasuna, arnastutako aire kalitatea eta zaratagaitik). Ibilbidea erreken albotik izan ahal da, eta Ur Patzuergoarena da eskumen hori.

- Arrakastak beste baldintza batzuk izango ditu: bide-sareen irisgarritasuna eta norberak bere helmugara heltzeko izango duen azkartasuna. Garraiobide baten erabilpenak garraiobide horrek eskaini dezakeen azkartasunaz lotura estua duela azaldu da.

▪ **Garraio publikoa – kolektiboa:**

- Orokorrean Iurretak duen garraio publikoaren eskaintzarekin konforme daudela esan dute parte-hartzaileek.

- Garraio pribatua alde batera utzi eta garraio publikoa edo kolektiboa erabiltzeko, gizartean erabateko mentalitate aldaketa eman behar dela aipatu da. Adibide argi bat eman da: Badago enpresaren bat garraio kolektiboa jarri duena, baina antza ez du arrakastarik izan erabilpenari dagokionez.

- Iurretak abian jarri duen Taxi-Auzunea zerbitzuaren ezaugarriak ez dira sakonean ezagutzen oraindik. Zerbitzu hau izan ere, nahiko berria da eta parte-hartzaile batzuk ez dakite oraindik salneurria joan-etorriko edo bidaiariko den. Bestalde, parte-hartzaileetariko batzuek ez dute Iurretako Udalak abian jarri duen autoa konpartitzeko ekimenaren berri izan. Bi ekimenak oso positiboak direla aipatu da.

de compartir coche. Se valoran muy positivamente las dos iniciativas.

- El concejal, Iñaki Gil, aclara que la iniciativa del taxi bus responde a la necesidad de algunos/as vecinos/as que residen en los núcleos rurales, en especial las personas mayores, a tener la oportunidad de disponer de transporte público. En principio, es una transporte de puerta a puerta y el usuario directamente llama a los dos taxistas existentes en Iurreta. Si estos taxistas no pueden atender el servicio, derivarían su cliente a los taxistas de Durango. En principio, este servicio se ha implantado para dar servicio a los núcleos rurales que no disponen de servicio de transporte público para poder conectarlos con Iurreta.
- Alguien solicita que sería interesante ampliar el servicio de Taxi Auzunea con el objeto de que se pueda ir al médico especialista en el Ambulatorio de Durango.
- Se estima preciso la implantación de un servicio de transporte público para conectar con los grandes centros comerciales (EROSKI y SABECO).
- También se estima necesario implantar un servicio de transporte público con horarios adecuados al horario laboral para ARRASATE y VITORIA.
- Se plantea la idea de la implantación de un servicio de transporte público que conecte los municipios del Duranguesado y en especial los sitios de mayor atracción de viajes (piscinas, Ayuntamientos, ambulatorio...).
- Sería apropiado que los autobuses que realicen el servicio público fuesen eléctricos con el objeto de que contaminen menos.
- Convendría mejorar la accesibilidad de la parada de autobús ubicada a lado del Kultur Etxe. Sobre todo respecto al paso subterráneo, ya que algunas personas tienen dificultad, e imposibilidad en algunos casos, para utilizar la misma. Respecto a este termino surgen algunas ideas para solucionarlo: tapar el techo de la entrada y salida del subterráneo mediante una capa de cemento para evitar la intemperie; instalar un ascensor en subterráneo; e instalar un puente por encima de la

- Iñaki Gil zinegotziak Taxi Auzunea ekimenaren azalpena eman du: landa-guneetan bizi diren bizilagunen beharrizanak bete nahi izan dira, pertsona nagusien beharrizanak batez ere. Bizilagun hauek garraio publikoaren eskaintza izan dezatela da ekimenaren helburua. Hasiera baten zerbitzu hau aterik-ateko zerbitzua da, eta erabiltzaileak Iurretako taxi-gidariei dei bat egin eta zerbitzua ematen zaio. Taxi-gidariek ezingo balute zerbitzua eman momentu jakin batean, Durangoko taxilarien laguntza daukate. Hasiera baten Iurretako landa-auzoetako bizilagunak Iurretako herrigunera hurreratzeko sortu da zerbitzua, garraio publikoa auzo hauetatik ez da igarotzen eta.
- Zerbitzuaren hobekuntza bezala, herritar batek dio zeinbat kasutan ibilbidea luzeagoa izatea komeniko litzatekeela, Durangoko Anbulategira mediku espezialistarengana joateko, adibidez.
- Garraio publikoa merkataritza-gune haundietara heldu beharko litzatekeela azpimarratu da (Eroski eta Sabeco).
- Arrasate eta Gasteizerako garraio publiko egokiagoa behar dela esan da, laneko ordutegiekin bat datorren ordutegiarekin.
- Durangaldeko herrien arteko garraio publikoaren beharra azpimarratu da, joan-etorriak sortzen dituzten guneekin lotzeko batez ere (igerilekuak, Udaletxeak, anbulatorioa, etab.)
- Garraio publikorako erabilitako autobusak elektrikoak izan beharko liratekeela esan da, igorritako kutsadura murrizteko.
- Kultur Etxe ondoko autobus geltokiaren irisgarritasuna ez omen da egokia, eta hobetu beharko litzateke. Lur-azpiko pasagunea, ain zuzen ere. Mugikortasun urria duten bizilagunentzat ez omen dago egoki. Arazo honen aurrean hainbat ideia eman dira: sarrera eta irteerako estalpea ezartzea (euri ta haizetik babesteko), lur azpira doan igogailu bat ezartzea, eta azkenik, N634 errepide nagusiaren gainetik zubi bat ezartzea eta lur-azpiko pasagunea kentzea da azaleratutako beste ideia bat.

N634 y suprimir el subterráneo existente.

- Se comenta que sería necesaria una valla en el arcen de la Ferretera, ya que existe gente que debe desviarse en un tramo por la carretera general del bidegorri y ese tramo es peligroso. Respecto a esta petición, se le comenta que el cruce de los bomberos en la N634 va a ser remodelada y se cree que ese tramo también será remodelado.

- También se dice entre los asistentes que hay gente que cruza la carretera N634 de manera insegura desde la parada de autobús de Arriandi y que sería necesario tomar medidas al respecto. Respecto a este punto en concejal, Iñaki Gil, responde que está planteado el soterramiento de dicho paso.

- Alguien solicita que se tomen medidas respecto a que existe gente que cruza la carretera N634 en el barrio San Antonio de Euba. En relación a esta petición, se le comenta que desgraciadamente este estudio no incluye el municipio de Zornotza, pero se le aconseja que realice la oportuna solicitud en el Ayuntamiento de Zornotza.

▪ **Transporte alternativo: Compartir coche:**

- En principio, los asistentes se muestran receptivos respecto a la idea de compartir coche para ir al trabajo.

- Se informa la reciente implantación y funcionamienro de la nueva sección sobre “compartir coche” en la página web de Iurreta.

▪ **Aparcamientos disuasorios:**

- Se comenta que actualmente existen suficientes parkings que realizan de funciones de aparcamiento disuasorio en Iurreta.

- Respecto a la idea de implantar un aparcamiento disuasorio en la comarca, se pide que dicho aparcamiento debería de estar cerca de una estación de tren y una parada de autobuses.

- Se pide que no se señalicen los aparcamientos sitos en Iurreta en los que los/las habitantes de la comarca llevan a cabo la intermodalidad o el coche compartido, se teme que de señalizarlos como “parkings

- Ferretera enpresa ondoan den bazterbidean hesi bat jartzea komeniko litzatekeela esan da. Antza, bizilagun batzuk Durangoko bidegorritik eta inguru honetatik pasiatzeko ohitura dute eta gune hau arriskutsua da oinezkoentzat. Eskaera honi erantzunez, suhiltzaileak gaur egun dauden bidegurutzea aldatu behar dela esan da, eta gune hau ere aldatuko omen da.

- N634 errepide nagusia hainbat bizilagunek era arriskutsuan zeharkatzen omen dute Arriandi auzoan, autobus geralekutik beste aldera zeharkatzen dute. Iñaki Gil-en esanetan, Arriandin errepide nagusia zeharkatu ahal izateko lur-azpiko pasagune bat ezartzea pentsatua du Iurretako Udalak.

- Errepide nagusia zeharkatzeko arriskua Eubako San Antonio auzoan ere ikusten du herritar batek. Tamalez, esku-artean dugun azterketa honek ez du Zornotza aztertzen. Hori dela eta, Zornotzako Udalean gai honi buruz dagokion eskakizuna luzatu dezakela esan zaio parte-hartzaile honi.

▪ **Garraio alternatiboa: auto partekatua**

- Orokorrean parte-hartzaileak lanerako joan-etorrietarako autoa partekatzearen alde azaldu dira.

- Iurretako Udalak abian jarri berri duen zerbitzuari buruzko informazioa eman da. Iurretako web-orrialdean autoa partekatzeko atal berria ezarri da oraintsu.

▪ **Aparkalekuak, intermodalitatearekin lotuta:**

- Gaur egun Iurretan disuasio-aparkaleku eskaintza zabala eta nahikoa dagoela esan da.

- Durangaldean era honetako aparkalekuak ezartzerakoan aparkaleku horiek autobus edo tren geltokietatik gertu egon beharko liratekeela aipatu da.

- Bestalde, Iurretan dauden aparkalekuak “disuasio-aparkaleku” bezala ez seinaleztatzeko eskaera egin du herritar batek. Ondo dagoela Durangaldeko biztanleek aparkalekuak intermodalitaterako erabiltzea, baina era honetan seinaleztatzen badira agian aparkaleku hauek gainezka beteko liratekeen beldurra azaldu du herritar

<table>
<tr><td>
intemodales” se saturarían y no tendrían cabida los vehículos de los/las vecinos/as de Iurreta concretamente.<br><br>
▪ Implicación social e institucional:<br>
Implicación institucional:<br>
- En cuanto a la implicación institucional se pide colaboración a las administraciones.<br>
- Algunos opinan que el cambio de mentalidad no sólo es una cuestión de concienciación. Poniendo medios, poniendo una alternativa de transporte público, posteriormente habría que penalizar el uso del vehículo privado.<br>
- Implicación social:<br>
- Sería necesario el trabajo de todos/as para poder lograr un cambio de mentalidad respecto a dejar de un lado el vehículo privado y coger hábitos de movilidad más sostenibles.<br><br>
▪ Otros:<br>
- Uno de los asistentes comenta que aunque no sea exactamente la función del presente estudio, se anima tanto a la Mancomunidad como a los diferentes Ayuntamientos que la conforman, a que se abra un debate social sobre el PTS de intermodalidad, que se está redactando. Se ve necesaria esta participación social.
</td><td>
honek, eta hau gertatuz gero, Iurretako biztanleek beraien ibilgailuak aparkatzeko aukerarik ez luketeela izango esan du.<br><br>
▪ Erakundeen eta gizartearen inplikazioa<br>
Erakundeen inplikazioa:<br>
- Mugikortasun iraunkorragoa lortzeko administrazio ezberdinen arteko elkarlana eskatu da.<br>
- Batzuen ustez, gizartearen mentalitate aldaketa ez da kontzientziazio arazo bat bakarrik. Baliabideak beharrezkoak dira, garraio publiko alternatiba bat. Gerora ibilgailu pribatuaren erabilpena zigortu beharko litzateke.<br>
Gizartearen inplikazioa:<br>
- Denon lana omen da gizartearen mentalitatea aldatzea, ibilgailu pribatua alde batera utzi eta mugitzeko ohitura iraunkorrago bat bultzatzea.<br><br>
▪ Beste gai batzuk:<br>
- Bertaratutako herritar baten ustetan, eta nahiz eta foro honetan hitzegiteko gaia ez izan, Amankomunazgoak eta baita osotzen duten Udalek intermodalitatearen LAPari buruzko eztabaida bultzatu behar lukete. Gai honen inguruan parte-hartzea beharrezkoa ikusten du eta erakundeak parte-hartze hau bultzatzera animatzen ditu.
</td></tr>
<tr><td>5. Resumen del trabajo grupal</td><td>5. Taldekako lanaren laburpena</td></tr>
<tr><td>Una vez terminado el trabajo grupal, las consultoras exponen alternativamente las conclusiones más importantes obtenidas en dichos grupos. Los asistentes muestran su conformidad respecto a los resúmenes citados.</td><td>Taldekako lana bukatu ondoren, taldeetan hitzegindakoa laburtu dute aholkularitzako teknikariek. Parte-hartzaileak ados daude egindako laburpenarekin.</td></tr>
<tr><td>6. Agradecimientos y despedida</td><td>6. Agurra eta hurrengo pausuen azalpena</td></tr>
<tr><td>Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que la próxima reunión tendrá lugar el 11 de junio donde se</td><td>Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, hurrengo pausua zein izango den azaldu da. Ekainaren 11an berriz ere herritarrekin</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| presentará las propuestas de acción del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado para su debate.<br><br>Se comunica la metodología del levantamiento del acta de lo efectuado, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | biltzea da asmoa. Beste parte-hartze foro bat ospatuko da egun horretan, Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Ekintza Planaren aurkezpena izango da hizpide foroan.<br><br>Parte-hartzaileei azaldu zaie akta onartzen denean Udalaren bitartez herritarrei zabalduko zaiela.<br><br>Bertaratutakoei beraien ekarpenak eskertu zaizkie, eta hurrengo fororako gonpidapena luzatu zaie. Hurrengo baten ere beraien zalantzak eta ekarpenak elkarbanatzeko prest daudela antzeman da. |